

TESTULIBURUEN DOAKOTASUNA

1. SORTEN KONFIGURAZIOA

- 2026-2027 ikasturtetik aurrera, liburuen konfigurazioa automatikoki kargatuko da ikasmila guztietan, urtero berritzen direnetan izan ezik (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak, CBU, DOH, GNO eta curriculum egokituko programa).
- Berritu beharreko sortak dituzten gainerako ikasmailetarako, Doakotasun Programak liburuak/materialak hautatzeko sarbidea emanen die. Sortak indarrean badaude, konfigurazioa blokeatuta egonen da.
- EDUCAn soilik konfiguratuko dira ikastetxeak Doakotasun Programaren barruan sartzea nahi duen liburuak/ikastetxeak egindako materialak/guztiekin erabiltzeko materialak.
- Ez dira Doakotasun Programan sartzen testuliburuei lotutako materialak, beren izaeratik hurrengo ikasturteetan ikasleek berrerabili ezin dituztenak, Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako bideratuak izan ezik. (Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuak finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren 2.2 artikulua). Horregatik, **ezin da koadernorik sartu**.
- Indarraldia: programaren indarraldia **bost ikasturtekoa** da, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetarako izan ezik, eta aldi horretan ez da inolako aldaketarik egiten ahalko (ISBN aldaketak, liburuen ordezkariak egindako materialak erabiltzea, etab.).
- EDUCAn, lotea taxutzean ISBNetan agertzen den indarraldia, argitaletxeak liburu hori argitaratzeko konpromisoa hartu duen arte da, beraz, lotea berritzerakoan, ikastetxeek beti aukeratu beharko duzue 5 ikasturte gehiagoko indarraldia duen liburu bat (adib.: 30/31 ikasturtera arte mantendu behar den ISBN bat aukeratu behar bada, indarraldia 2031 izan beharko da).
 - Ikastetxe batek ez badu jasotzen ikastetxeak egindako libururen/materialen bat Doakotasun Programan, eta zenbatekoa ikasleen legezko ordezkariak ordaintzen badute, indarraldia ez da aplikatuko, ez baitago Doakotasun Programaren barruan, eta ikastetxeak nahi duenean alda dezake.

- Arlo edo eremu baterako konfiguratu behar izanez gero, non liburuarekin zein ikastetxeak egindako materialarekin lan egiten den, azken hori honela konfiguratu daiteke: Argitaletxea: “Materiala”.

2. TXOSTENAK

- Liburuak/materialak ordaintzeko eskatzen denean birjartzeagatik, gradu anitzeko premiengatik, hautazkoengatik eta gainditu gabekoengatik edo programa eleaniztunak ezartzeagatik, dagokion dokumentuaz gain, txosten bat ere bidali behar da, laguntza eskatzeko premia azaltzen duena, honako hauek adierazita: liburu kopurua, ISBNa, zein irakasgai edo eremuri dagokion, ikasturtea eta liburuen zenbatekoa.

3. JUSTIFIKATU DAITEZKEEN GASTUAK

- **Guztiekin erabiltzeko materiala edota testuliburuak erosiz gero:**
Guztiekin erabiltzeko materialen edota liburuen fakturak sartuko dira, ordaindu diren ikasturteei dagozkienak, EDUCAn konfiguraturata daudenean eta ikastetxeak berritzeko edota birjartzeko erosten dituenetan.
- **Ikastetxeak sortutako materialaren kasuan:**
Ikastetxeak sortutako materiala sartu bada Testuliburuaren Doakotasun Programan, gastu horren kalkuluar buruzko txostena ere aurkeztu behar da. Kontuan izan behar da bakarrik justifikatu behar dela ordaintzea eragin duten ikasmilengatik eta ikasleengatik. “CONCIERTA” aplikaziora igoko da, “Kontuak onartzeko ziurtagiriarekin” batera

Kontuan izan behar da ezin izango direla sartu ariketak dituzten materialen kopiak, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailatan izan ezik.

- **Nola kalkulatu kostua?**
 - **Fotokopien kostua:** kostua kalkulatzeko, dokumentuaren amaieran ageri den 1. adibidea erabil daiteke. Fotokopiaren bat koloretan eginez gero, hori ere zehaztu daiteke, kostua bestelakoa baita.
 - **Paperaren kostua:** kostua kalkulatzeko, 2. adibidea erabil daiteke.
 - **Koadernaketaren kostua:** (Ikusi dokumentuaren bukaerako taula)

•Kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Testuliburuaren Doakotasun Planaren justifikazio espezifikoaren barruan, ezin dira sartu ordutegiak sortzen dituzten programak, agendak, orientazio-testak (Wisc, Sena...), ezta hezkuntza-baliabideen webguneetarako harpidetzak ere.

- Justifikazio berean ez da sartuko material suntsigarriaren gastua (txeloa, itsasgarriak...)
- Ikasliburuen erosketaz ikasleen legezko ordezkariak arduratzen direnean, bono bidez egingo da. Ez dago beste aukerarik, familiei erosketa horren kostua ordaintzea, adibidez.
- Gastu osoa justifikatu behar da, ordaindu diren liburu/materialengatik.

4. CONCIERTAN KONTABILIZATZEA

CONCIERTA APLIKAZIOA: <https://appseducacion.navarra.es/concierta>

Gastuen justifikazio ekonomikoa bete beharko dute, eta fakturak erantsi.
JARRAIBIDEAK

Gastuen idazpenak ikastetxeak kontabilizatu behar ditu, honako hauek kontuan hartuta:

- EDUCAn nola konfiguratu den, honako hau adieraziko da idazpenaren kontzeptuan:
 - Material mota: Testuliburua. ISBNa. Maila:
 - Eskolak sortutako materiala. Maila:
 - Guztiek erabiltzeko materiala. Maila:
 - Lizentzia digitala. ISBNa. Maila:

5. KONTUAK ONARTZEKO ZIURTAGIRIA

“Kontuak onetsi izanaren egiaztagiria” dokumentua “CONCIERTA” aplikaziotik deskargatuko da, eta eskola-kontseiluak onetsi, sinatu eta zigilatu ondoren, aplikazio horretara igoko da. Gainera, ikastetxeak sortutako materiala sartu bada Testuliburuen Doakotasun Programan, gastu horren kalkuluari buruzko txostena ere aurkeztu beharko da. Kontuan izan behar da bakarrik justifikatu behar dela ordaintzea eragin duten ikasmalengatik eta ikasleengatik.

Dokumentu hori atera ahal izateko, Doakotasuneko azken ordainketa egin arte (maiatzetik ekainera) itxaron behar duzue.

1. adibidea

Maila	Irakasgaia/eremua	Ikasleak	Fotokopia kop. (zuri-beltzean)	Kopiak guztira	Kopiaren prezioa (0,0041€/kopia)	%21eko BEZa	GUZTIZKOA
LH 1	Matematika	43	50	2.150	8,82 €	1,85€	10,67 €
LH 1	Ing. ezagutza	43	70	3.010	12,34 €	2,59 €	14,93 €
LH 2	Gaztelania	48	60	2.880	11,81 €	2,48 €	14,29 €
LH 2	Matematika	48	40	1.920	7,87 €	1,65 €	9,52 €
1. eta 2. mailak	Euskara	40	50	2.000	9,20 €	1,93 €	11,13 €
3. mailatik 6.era	Euskara	105	75	7.875	32,29 €	6,78 €	39,07 €
GUZTIRA				19.835	82,33€	17,28 €	99,61 €

Fotokopiak koloretan egin badira, horien kostua adierazi beharko da, eta hori aplikatuko da, zuri-beltzeko fotokopien kasuan bezala.

2. adibidea:

FOLIO KOPURUA GUZTIRA	FOLIOAK/PAK.	PAKETEAK	PREZIOA/PAK.	PREZIOA	%21eko BEZa	GUZTIRA
19.835	500	39,67	4,85€ (gutxi gorabeherako kostua)	192,40 €	40,40 €	232,80 €

Doakotasun planaren urteko kostu osoa: Egindako fotokopien guztizko prezioa (99,61€) + folioen guztizko prezioa (232,80€) + koadernatze elementuen guztizko prezioa.